


# hitzaren eskola

2019 - 2022 · Memoria hondarrak





***Oroimen naturalik ezean, paperezko bat egiten dut.***

Michel de Montaigne

***Hitzetan naiz, hitzez  
eginikoa, beste batzuen  
hitzak, besteak ere, lekua  
ere bai, airea, hormak,  
zorua, sabaia, dena  
hitzak.***

Samuel Beckett  
L'Innommable (Izendaezina)

# Hau ez da editoriala

Albert Camus idazlearen Arrotza liburutik:

*Eta zigarroena ere gertatu zen. Kartzelan sartu nindutenean, gerrikoa, zapata-lokarriak, gorbata eta patriketan neraman guztia kendu zidaten, zigarroak, bereziki. Behin ziegan nengoela, itzultzeko eskatu nuen. Baina debekatuta zegoela esan zidaten. Lehenengo egunak oso gogorak izan ziren. Horrexek adoregabatu ninduen gehiena, beharbada. Ohearen oholei egur puskak kendu eta miazkatzen nituen. Goragale izugarri bat izaten nuen egun osoan. Ez nuen ulertzen zergatik kendu behar zidaten inori kalterik egiten ez zion gauza bat. Geroago ohartu nintzen zigorraren parte bat zela hori ere. Baina une horretarako ohituta nengoen ez erretzera eta niretzat zigor hori dagoeneko ez en zigorra.*

*Gorabehera horiek kenduta, ez nintzen oso-oso zoritzarrekoa ere. Denbora nola igaroarazi, hori zen kontua orain ere. Gauzak gogoratzen ikasi nuenean, orduantxe bukatu ziren nire aspertzeak. Batzuetan nire etxeko gelaz gogoratzen hasten nintzen eta, irudimenean, zoko batetik abiatzen nintzen eta hara itzultzen nintzen berriro, bidean topatzen nuen guztia buruz zehaztuta. Hasieran, berehalaxe bukatzen nuen. Baina berriro hasten nintzen bakoitzeko, zertxobait luzeagoa bilakatzen zen. Zeren altzari guzti-guztiak gogoratzen baintuen, eta altzari bakoitzean, bertan zeuden gauza guztiak, eta gauza bakoitzean, egindako koska bat, haren kolorea edo haren pikorrak. Aldi berean nire inbentarioaren haria ez galtzen, zerrenda oso-osoa egiten ahalegintzen nintzen. Egia da aste batzuen buruan orduak igaro nitzakeela etxeko gelan zeuden gauzak kontatzen, besterik gabe. Horrela bada, zenbat eta gehiago pentsatu, orduan eta gauza ezezagun eta ahaztu gehiago ateratzen nuen nire oroimenetik. Orduan ohartu nintzen egun bat baizik bizi gabeko gizon batek aise igaro zitzakeela ehun urte ere kartzelan. Nahikoa eta sobera oroitzapen izango zituzkeen ez aspertzeko. Abantaila handia zen, zentzu batean.*



Camusen Arrotza nobelako Meursault jaunaren antzera, memorian topatu dugu guk ere kontsolamendua, Hitzaren Eskolako hiru edizioek eman digutena gogora ekartzen, osatzen eta berritzen pasa dezakegulako denbora. Eta guk ere, Meursault jaunak bezala, eskola egun bakarrari ertzak eta detaileak ikusten dizkiogu, loturak egiten ditugu, osotasun bat sumatzen dugu, halako hipertestu baten baitan bizi garela pentsatzeraino zenbaitetan.

Badakigu ezetz: memoriak zapart egiten digu esku artean, mila printzatan lehertzen da denbora, beste hainbat zurrunbilotan galtzeko gero. Dena doa ihes. Eta egunak uzten dizuna ez da nekea besterik.

Nekearentzako antidotorik badagoen ez dakigu, lo ta lo ta lo ta lo egitea akaso, hori ere ez seguru asko. Badakiguna da Hitzaren Eskolan egindakoak berritzeak guri behintzat eman digula poz poxi bat, eman digula gauza eder bat egin izanaren irudipena.

Eta horixe konpartitu nahi dugu zurekin, horixe ekarri nahi izan dugu orriotara, oso modu askean. Irakasleek erabili duten materiala jarri dugu batzuetan, beste batzuetan klaustroetan emandako azalpenak, saioen deskribapena, erreferentziak, ekitaldi irekietako testuak, argazkiak, denetik.

Papererako prestatu dugun memoria hau Meursault jaunaren kartzela egun bateko ariketa da; sarean joango da aurrerago memoria osoagoa, exhaustiboagoa, Funesena izan nahiko lukeena, ezinezkoa dela jakinagatik.

Hitzaren Eskolak egitura jakina izan du orain arteko hiru edizioetako bakoitzean: 6 hilabete, 6 irakasle, bakoitzak hitza bere adierazpide eta ikuspegitik lantzeko. Eta hilaren bukaeran irakasleak proposatutako ekitaldi irekia eta klaustroa, irakasle guztiak bildu eta eskolaren beraren martxari buruz aritzeko.

Ezin konta ahala gauza egin dugu hiru urteotan, memorian aztarka hasi eta mila kontu atera zaizkigu, izenak bata bestearen atzetik, harremanak, une ederrak, aukerak.





### Ederraren formak

Nire ustea da: artista izan nahi du mundu guztiak. Horrekin ez naiz esaten ari, mundu guztiak idazlea izan nahi duela, edo bertsolaria edo kantaria edo musikaria edo dantzaria edo aktorea edo zinegilea edo pintorea. Ez. Esan nahi dut, mundu guztiak ondo egin nahi dituela gauzak, edertasun formaren batez, atsegintasun suerte batez... elkarrekin egoteko, elkarri esateko, elkarri eskaintzeko.

Desira bat da, borondate bat da; bulkada bat, joera bat. Denok duguna.

Presenteari era sortzaile batez erantzuteko desira edo borondate moduko bulkada bat daukagun arren, mundu guztiak ez du izan nahi filosofoa edo iraultzailea, matematikaria edo giza fotosintesiaren asmatzailea.

Apal adierazita: Baratzeak bezala belardiak eder egon daitezen ahalegintzen gara. Arrantzaleak ontzi dotore batean joan nahi du itsaso zabalera, eta txukun bezain praktiko prestatzen du dena. Platerak edo altzariak, bazkariak edo etxeko txokoak politak eta gustagarriak izan daitezen nahi dugu. Jantziak edo elektrotresnak, kaleak edo zubiak, eskola edo fabrika, automobila edo hegazkina, argiak edo soinuak ederrak izan daitezen diseinatzen ditugu. Geuretzat eta denontzat.

Ohe eroso bat, konputagailu azkar bat, begi distiratsu batzuk... Denak dauka diseinu bat, bere gisakoa baina eder eta atsegintasun suerte batekoa. Denak dauka lengoia bat, egitura bat, forma bat, funtzio estilistiko bat, sistematizazio bat, sintaxi bat, distira bat..., diseinu bat munduan izateko eta jokatzeko.

Animaliak eta landareak, errekek eta mendiak, hodeiak eta elurrak, denek diseinu espektakularrak daukate. Hegaztien hegan egiteko diseinua daukate, borondate baten ondorioz ziur aski. Eta harriek eta kristalek ere ederrak izateko joera dute, formazio eta egituratze estrainio bat, borondate berezi bat balute bezala: bulkada bat... eta beraz joera bat... hobeak izateko, orain edo gero.

Horixe da niretzat hitza (mintzoa, esaldia): bulkada baten, desira baten, borondate baten ondorioa... hegan egin ahal dezagun; izan gaitzen atseginak, maitatuak, kooperatiboak, sortzaileak, aerodinamikoak.

Artista izan nahi du mundu osoak, hori da nire ustea. Gaueko izarrek, adibidez, nire alabak eta bere lagunek.

*Diamante batek gehiago irauten du hiriburu batek [Parisek]  
edo zibilizazio batek baino; garai guztietatik independentea  
bihurtzeko asmoa du perfekzio borondateak.*

Paul Valery, 1931





1. ...  
2. ...  
3. ...  
4. ...  
5. ...  
6. ...  
7. ...  
8. ...  
9. ...  
10. ...  
11. ...  
12. ...  
13. ...  
14. ...  
15. ...  
16. ...  
17. ...  
18. ...  
19. ...  
20. ...  
21. ...  
22. ...  
23. ...  
24. ...  
25. ...  
26. ...  
27. ...  
28. ...  
29. ...  
30. ...  
31. ...  
32. ...  
33. ...  
34. ...  
35. ...  
36. ...  
37. ...  
38. ...  
39. ...  
40. ...  
41. ...  
42. ...  
43. ...  
44. ...  
45. ...  
46. ...  
47. ...  
48. ...  
49. ...  
50. ...  
51. ...  
52. ...  
53. ...  
54. ...  
55. ...  
56. ...  
57. ...  
58. ...  
59. ...  
60. ...  
61. ...  
62. ...  
63. ...  
64. ...  
65. ...  
66. ...  
67. ...  
68. ...  
69. ...  
70. ...  
71. ...  
72. ...  
73. ...  
74. ...  
75. ...  
76. ...  
77. ...  
78. ...  
79. ...  
80. ...  
81. ...  
82. ...  
83. ...  
84. ...  
85. ...  
86. ...  
87. ...  
88. ...  
89. ...  
90. ...  
91. ...  
92. ...  
93. ...  
94. ...  
95. ...  
96. ...  
97. ...  
98. ...  
99. ...  
100. ...

## LOTERIA Shirley Jackson The Lottery The New Yorker, 1948/06/26

euskaratzailea: Izaskun Etxebeste Zubizarreta [armiama.eus](http://armiama.eus), 2020

### Ikasleen balorazioetatik

Bereziki disfrutatu nuen Miren Gaztañagaren saioekin: segur aski aparteko ikastaroa balitz, lotsagatik edo (horrek ez du esan nahi gogo sekreturik ez nuenik izango) ez nintzelako animatuko, baina horrelako ikastaro batean kamuflatuta, banuelako koartada. Bikaina izan zen dena: harritu egin ninduen zeinen gustura aritu nintzen eta zeinen baliagarriak izan ziren egindako ariketak. Denak zuen zentzua. Oso ona. **Xabier Larrazabal**

Bide horretan, bereziki eskertu dut Miren Gaztañagaren perfileko irakasle bat izatea. Burutik lan egitera ohitu garenoi asko kostatzen zaigu gorputza ere sorkuntzarako abiapuntu izan daitekeela sinestea. Gaztañagarekin pasatako ordu bakoitzak harritu eta mugiarazi nau. Bide berri bat zabaldu dit, eta susmoa dut jarraituz gero beste bide asko ere zabal ditzakeen bidea dela gainera. **Lander Arretxea**

Miren Gaztañagarekin, ustez hitzetik urrundu ginen irudipena izan genuen hasieran, askotariko ariketak eginarazi baitzizkigun, txandala jantzita. Baina ageria jarri zigun hizkuntzan gure gorputzak betetzen duen lekua. Lehen, "gorputzetik idatzi" eta horrelakoak entzuten nituenean, ez nekien ondo zer esan nahi zuten, baina esango nuke horrelako zerbait egiten ahalegindu garela... Neure buruak harrituta utzi ninduen zenbaitetan, ariketa xeble horietan guztietan: ikaskideekin egindako erritual zoragarriak, arnas faltak eragindako berriketaldiak, sugearena eginez elkarrengana hurbiltzeko edo elkar oztopatzeko jokoak, idazketa automatikoa... Eta, gero, lurrera etorri, eta idatzi, zertan ari garen ahaztu gabe... **Edurne Lazkano**



- **Ariketa: Hitz deabruzkoak (I)**

Ambrose Bierceren Deabruaren hiztegia oinarri hartuta, hitz batzuk aukeratu, eta hurrengo egunerako etxeko lanak: haien definizio literario eta jolastia egin, nork berea. Gero konparatu Biercek eta beste kideek egindakoekin.

- **Ariketak:**

Indartsu hasi: Itzuli, edo izan zaitezte Melville! (I)  
Izan zaitez Melville: Moby Dick. "Call me Ishmael". Ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez: konparatu bertsio guztiak, eta egin etxeko lanak: proposatu euskarazko egokiena hurrengo egunerako.

Hitz deabruzkoak (II)

Ambrose Bierceren Deabruaren hiztegiko hitz batzuekin etxean egindako definizio literario eta jolastiak irakurri. Konparatu Biercek eta beste kideek egindakoekin.

- **Ariketak:**

Indartsu hasi: Itzuli, edo izan zaitezte Melville! (II)  
Izan zaitez Melville: Moby Dick. "Call me Ishmael". Etxean landutakoa aztertu eta komentatu denon artean: zein da euskarazko egokiena?

Tolstoiren Anna Karenina. Bertsio batzuk konparatu: euskarazkoak eta gaztelaniazkoak (jatorrizkoak zehatz zer dioen jakin gabe, errusierazkoa delako).

- **Ariketa: Pessoa gogoan; 'Olerkaria itxurazale hutsa duzu'**

Idatzi narrazio bat, beste idazle baten estiloa antzeratuz: Eider Rodriguezen estiloa. Etxetik egina ekarri dute. Bakoitzak berea leitu, eta denen artean aztertu.



# Gihartu hitza



COVID19aren eraginez Hitzaren Eskola bi saioen ostean eten egin behar izan genuen itxialdian sartu ginelako. Tarte horretan, ariketa hauxe bidali nien, Unai Elorriagaren 'Ortozik eta zikin' ('Iturria', 2019, Susa) ipuina –itxialdi bat kontatzen duena– inspirazio iturri hartuta gogoetarekin jarraitzeko. Eta 3. saioan sentipenak eta idatziak konpartitu genituen. Hemen ariketa jasotzen zuen Mezua:

Hitza etenda geratu zaigu azkenengoz Dinamoan elkartu ginenetik. Nork esan orduan... hitzen atzean zegoenari begira ari ginela...

Zer dago oraingo hitzen atzean? Zeintzu dira oraingo hitzak? Erdigunea hartu dutenak? Aurretik hainbestearaino etxekotuko genituenik sumatu ere egiten ez genituenak? Birusa, Wuhan, pandemia, etxealdia, itxialdia... eta beste, denok eguneroko ogia lez darabilzkigunak. Eta zeintzu norberaren hiztegi partikularrera etorri diren hitzak edota itzuli direnak? Eta ekarri ditugunak? Ze hitz dira? Nolakoak dira? Zer dute atzean? Zer ezkutuan? Demagun, otutzen zait, zer zen haur bat Covid 19a aurretik eta zer da orain? Zer zegoen haur hitzaren atzean lehen edo zer dago orain?

Ariketa bat proposatzen dizuet. Hitz horietatik abiatuta, bizi dugun egoera honen gaineko hitzen atzea arakatzea, edo egoeraren gogoetatzea, kezka bat, ideia bat, pentsamendu bat, lerro bat, poema bat, keinu bat, zirriborro bat... osatzea. Nahi duen formatoan, kantu, irudi, bertso, musika... edozer. Dena libre, katean ibiltzera behartuta gauden garaiotan.

Atxikita, ipuin bat duzue, inspirazio eragile izan daitekeena: Unai Elorriagaren 'Ortozik eta zikin' ipuina, iaz argitaratu zuena, 'Iturria' liburuan. Ea zer iruditzen, ea zer esaten dizuen...

Guztion hitzak aurrez aurre biltzen garenean parkekatu ditzakegu.



ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA,  
LANA DELA-ETA JOAN-ETORRIAK EGIN  
BEHARRARI BURUZKOA

DECLARACIÓN  
RESPONSABLE RELATIVA A LA  
NECESIDAD DE DESPLAZAMIENTO  
POR RAZÓN DEL TRABAJO



**A.- ENPRESAREN DATUAK / DATOS DE LA EMPRESA:**

Enpresaren izen soziala: Denominación social de la empresa:	SANGUSTIN AZPEITIKO KULTURGUNEA KOOP. ELK.
IFZ/NIF:	F75044685
Helbide soziala: Domicilio social:	ENPARANTZA NAGUSIA 5, BEHEA 20730 AZPEITIA
Jarduera (deskribapen laburra) Actividad (descripción breve)	OROTARIKO KULTUR ETA HEZKUNTZA JARDUERAK
Harremanetarako telefonoa: Teléfono de Contacto:	666 666 666

**B) LANEKO JOAN-ETORRIAK EGITEKO BAIMENDUTA DAGOEN LANGILEA EDO AZPIENITUTAKO/ PERSONA TRABAJADORA O SUBCONTRATADA AUTOMÁTICAMENTE DESPLAZADA/ PERSONA TRABAJADORA O SUBCONTRATADA AUTOMÁTICAMENTE DESPLAZADA**

Izena eta abizenak: Nombre y apellidos:	MIGELENA ARANBARRI LEGARDA-EREÑO
NAN/DNI:	53359335Z
Lanera joateko helbide honetatik ateratzen da (bizilekua): Dirección Origen del desplazamiento (domicilio):	MIGELENA ETXEA 20494 ALKIZA GIPUZKOA
Lanera helbide honetara joaten da (lan egiten duen lekua): Dirección Destino del desplazamiento (lugar prestación actividad laboral):	DINAMOA SORMEN GUNEA SOREASU AUZUNEA Z/G 20730 AZPEITIA
Sarrera- eta irteera-ordutegiak / datak: Horarios entrada y salida / fechas:	EKAINA

**C) ADIERAZPENAREN ARDURADUNAREN IZENA/ PERSONA RESPONSABLE DE LA DECLARACIÓN:**

Izena eta abizenak: Nombre y apellidos:	XABIER ARANBARRI LEGARDA-EREÑO
NAN/DNI:	66666666Z
Harremanetarako telefonoa: Teléfono de Contacto:	666 666 666
Data / Fecha:	2020.06.01
Sinadura eta zigilua: Firma y sello:	  Plaza Nagusia 5, Azpeitia, 20730 <a href="http://www.sanagustinkulturgunea.net">www.sanagustinkulturgunea.net</a>

*Irudiaren munduak bizi gaituen honetan, eta dena irudiz kontatzeko ahaleginera mugatzen den momentu honetan, ikus-entzunezkoen mundua ezagutzen hasita, jabetu nintzen, eta jabetzen naiz ikus-entzunezko ezkontza horretan, ikus gauzak egiten direla entzun gauzak bainoago. Ikus-entzunezko kontakizun batean, gero eta nabarmenagoa da ikusari zer garrantzia ematen diogun, eta zer garrantzia gutxi ematen diogun entzunari. Iritsita dago momentu bat zenbaitetan nahiago izaten dudana ikus-entzunezko bat ikusi bakarrik egin, belarriak estalita, belarrietara datorkidan ia guztiak min egiten didalako. Eta ez arrazoi konkretu batzuetatik. Batzuetan da soinu kalitateagatik; beste batzuetan da entzuni tokirik topatu ezina ikus horretan; eta askotan da hitzaren erabilera.*


DAPA bideotik erauzitako testua

Hitzaren Eskola | Arantxa Iturbe



▶ ⏪ 🔊 0:18 / 1:11

Xehetasunak ikusteko, egin beheara



## ORWELL (1984)

Nobela amaieran, eranskin bat ageri da, "Hizketaberriaren printzipioak".

Kasu honetan, neohizketa berez, ingelesaren bertsio laburtua da (itzulpenetan moldatu egin ohi da itzulitako hizkuntzara), eta Alderdiaren erregimen totalitarioaren oinarrietako bat da, hizkera berria. Hizketaberriak zaharra ordezkatu behar luke (irakurlearentzat gaur eguneko ingelesa), horrela, Alderdiko kideen pentsakera menderatu eta INGSOCaren kontrako pentsakerak biderik izan ez dezaten. Horrela, askatasunaz inork gogoetarik egin ez dezan, azabatu egiten dira hitzaren esanahi horiek.

HIZTEGIA ahalik eta murriztena izango da (Txarra hitza =ezona)

Hiru zati izango ditu:

**A hiztegia:** Hitz arruntak, egunerokoak (jan, edan, zuhaitza). Kasurik gehienetan, hiztegi zaharrarekin bat datoz. Baina sentimentu oinarrikoak adierazteko, ez eduki politiko edo filosofikorik.

**B hiztegia:** Asmo politikoz sorturiko hitzak, hiztunaren pentsakera zuzentzea eta kontrolatzea da helburua. Hala, sexuon (kastitatea).

Ohore, justizia, moraltasun, internazionalismo, demokrazia, zientzia... ez ziren jada existitzen. Hitz bakar bat, esaterako, askatasun eta berdintasun esateko, krimenpentsatu.

**C hiztegia:** hitz zientifikoak eta teknikoak, baina moldatuak, "arriskutsuak izan ez daitezen".

GRAMATIKAK bi ezaugarri izango ditu:

1. Edozein hitzek edozein funtzio bete lezake esaldiaren barnean, hau da, hitz bera erabil liteke izen, aditz, adjektibo, adberbio bezala. Euskaraz zaila da hau lortzea, baina ingelesez askoz errazagoa da.
2. Erabateko erregulartasuna. Hala, iraganeko aditz guztiak –ed amaituko dira plurak guztiak –s etab.

Orwell totalitarismoen kontrako ekintzailea zen (bai teorian eta bai praktikan).

Eta horretarako, ezinbestekoa da argi pentsatzea. Eta argi pentsatzeko, hizkuntza behar dugu.

Idazteko, SEI ARAU utzi zituen, baliagarri zirelakoan:

1. Ez erabili inoiz metaforarik, similik edo antzeko literatura baliabiderik idatziz sarri aurki daitekeenik. (klixeak)
2. Ez erabili hitz luzerik bere tokian laburra erabili badaiteke.
3. Hitz bat kentzea baduzu, kendu.
4. Ez erabili pasiboa aktiboa erabil badaiteke.
5. Ez erabili hitz arrotzik, zientifikorik edo halakorik ordain arrunta baldin badu.
6. Ez bete hemen esandako ezer lekuz kanpo dagoen zerbait esan behar baduzu.

Sei arau hauei, aholku bat erantsi zien:

Idazten ari garela, esaldi bakoitzaren aurrean gelditu eta galdetu behar genioke geure buruari: zer esan nahi dut? Zer hitzek adierazten dute hori? Zer irudik egiten dute argiagoa? Esan dezaket laburrago? Hortik aurrera, hitz egokiak aukeratzen dago gakoa, irudiak ondo asmatzen, esanahia argia izan dadin.

***Pertsonak ez badute hizkuntza menderatzen, ezingo dute garbi pentsatu. Eta hau gertatzen bada, beste batzuk izango dira haien ordezkariak.***





# Zerutik eroria

## Chantal Akerman eta Jean-Luc Godard

**Jean-Luc Godard:** (...) Zertan ematen duzu denbora? Nola antolatzen duzu eguna? Lantegi bateko egun bat nolakoa den deskriba daiteke, zehatza ez bada ere...

**Chantal Akerman:** goizean goiz jaikitzen naiz, idazten saiatzen naiz...

**JLG:** Saiatu idazten, argazkiak egin beharrean? Baina, azkenean, argazkien bidez egiten da filma, ezta?

**CA:** Bai, baina erakutsi nahi dudana idazten dut, xehetasun guztiekin. Nire buruan ikusten dudana deskribatzen dut, argazkiak egin beharrean.

**JLG:** Ikusten duguna deskriba dezakegula uste duzu?

**CA:** Ez, ezin dugu, baina hurbil gaitzke.

**JLG:** Ez duzu uste oker zaudenik? Urrundu beharrean, hurbil gaitzkeela uste duzu? Idazten ikasi duzu?

**CA:** Bai, idazten ikasi dut.

**JLG:** Bakarrik? Edo eskola batean?

**CA:** Eskolara joan nintzen hirugarren urtera arte, eta han ikasi nuen idazten, nolabait esateko. Baina eskolan ez nuen ikasi idazten orain idazten dudana bezala. Niretzat, idazketa oso etapa garrantzitsua da. Baina ez egiten ditudan film guztietan.

**JLG:** Idatzi al duzu gaur goizean?

**CA:** Bai, gaur goizean oharrak hartu ditut. Baina ez dut filmari buruzko oharrak hartu, filmaren inguruan dauden gauzen inguruan oharrak hartu ditut. Marthe Roberten liburu bat irakurri dut Freudek judaismoarekin dituen harremanei buruz.

**JLG:** Goizean osorik irakurri duzu?

**CA:** Bai, gaur goizean osorik irakurri dut, baina dena ez dut irakurtzen, pasarte batzuk jauzi egiten ditut.

**JLG:** Nota baten adibidea emango zenidake, zer motatako irudiak diren ikusten saiatzeko, hain zuzen?

**CA:** Ez zuten zerikusirik irudi batekin.

**JLG:** Ez, baina hitzak ziren. Zein ziren hitzak?

**CA:** Hitzak. Hitz horiek zioten, azkenean, Freud bitan zatituta zegoela: jatorria gainditzea edo baztertzea, eta zerbait sublimea bizi nahi zuela era berean. Aldi berean, ez zuela guztiz desegin nahi zer zen, bere aita zer zen. Hau da, judu batek ezin zituela gauza jakin batzuk lortu "tara" —horrelako hitzak erabiltzen ditu— halako baten ondorioz. Eta film baten proiektua dudanez, aspalditik egin nahi dudana beste film baten aurretik filmatu nahi dudana, eta diasporari buruzko filma dela...

**JLG:** Orduan, bi proiektu dituzu?

**CA:** Bai, baina proiektuetako bat ez dut egingo benetan prest egon arte. Singerren bi liburutan oinarritutako filma egin nahi dut: *Le Manoir* eta *Le Domaine*. Liburu honetan nerbio-eritasunen mediku bat dago, eta ibilbide oso bat egiten du. Horregatik irakurri nahi nuen Freudi judaismoarekin zer gertatu zitzaion. Lasaitu egiten nau gauza batzuk jakiteak, eta gero... Gero ez dut hori guztia erabiltzen: inoiz ez ditut notak berriro irakurtzen. Lasaitu egiten nau ohar bat idazteak, berriro irakurri ez arren. Hala ere, idatzi ondoren, buruan ditut.

**JLG:** Bai, baina zergatik lasaitzen zaitu?

**CA:** Zerbait egin dut gaur goizean, benetako gidoia idazten hasi aurretik.

**JLG:** Baina eskuak lotzen badizkizute eta ezin baduzu idatzi, arazorik izango zenuke film-proiektuan lan egiteko?

**CA:** Ez, badira idatzi gabe egiten ditudan proiektuak, hala nola *News from Home*, *Hotel Monterey* eta *La Chambre* izeneko beste film bat. Baina kasu honetan idatzi beharra daukat.

**JLG:** Zein da aldea? Urduriago sentitzen zara?

**CA:** Ez, *News from Homen*, adibidez, film kontzeptualagoa zen, ideia batetik, talka batetik sortzen zena: New Yorkeko irudiak eta nire amaren karten irakurketatik abiatzen zena. Eta, gainera, New York oso ondo ezagutzen nuen eta banekien funtziona zezakeela: ez nengoen urduri. Baina orain film literario bat egin nahi nuke.

**JLG:** Lasai sentitzen zarela diozu, eta idazkera aipatu berri duzu. "Lasai" esan duzu, eta nik "egonezina" ondorioztatu dut orduan. *News From Home* filmaren kasuan, irudiez eta soinuez hitz egin berri duzu, ez duzu ez kezka ez lasaitasunaz hitz egin. Orduan, neure buruari galdetzen diot: ez al da idaztea aldi berean lasaitzen eta kezkatzen zaituena? Testuan eta idazketan ez dago drogaren antzeko zerbait, irudian eta soinuan ez dagoena, idazketatik datozenean izan ezik?

Zalantzarik gabe, baliteke droga behar izatea eta, aldi berean, beldurra izatea. Uste dut jendeak urduri egon behar duela, eta gero lasaitu, batez ere sortzaileak eta zinemagileak. Zinemagileei ez zaie asko gustatzen kamera, testua gehiago gustatzen zaie, aldi berean kezka eta lasaitasuna ematen baitie, droga bezala. Irudiak, berriz, lana da; eta lanak nekatzen du.

**CA:** Idazketa ere lana da, benetako lana.

**JLG:** Ez al da duela milaka urtetik egiten den lana? Egia esan, ez al zara zu zeu idazmakina bat besterik, baina aurretik idatzitako testu batekin egindako makina bat?

**CA:** Irudiak ere hor daude, buruan, duela milaka urtetik: dena hor dago, hala ere. Irudi finkoak ditugula uste dut.

**JLG:** Zure proiektuari dagokionez, badu irudi finkorik?

**CA:** Bai. Haurtzaroko irudiak ditut. Izan ere, egin nahi badut, aitaren oroitzenarekin oso lotuta dagoelako da, berak kontatu zidanarekin, nire irudimenarekin. Liburu hau aukeratu nuen aitak kontatzen zidana sartu nahi ez nuelako.

**JLG:** Zergatik ez abiatu aitaren argazki batetik eta luzaroan begiratu?

**CA:** Argazkia hor dago, buruan aspalditik daukat. Nire etxean, horman, aitaren argazkiak ditut, bizarrarekin eta guztiarekin.

**JLG:** Orduan, argazki batetik hasten da dena?

**CA:** Bai, baina baita hain desberdina zen jendearen fisikoaren errepresentazioak duen alde bortitzetik ere. Argi dago juduak bizarrez, papillotez eta guzti ikusten direnean, muturreko indarkeria eragiten diela besteei, baita niri ere. Bestalde, film honetan nire arazo nagusia gauxe izango da: nola egin ez dezala zerikusirik irudi folklorikoekin (horrelako irudi piloak baitaude, beraz, folklorikoak), ezta juduen irudiekin ere nazien garaian? Hori lortu eta zerbait gehiago bilatu

behar dut, baina ez dakit zehatz-mehatz zer. Nolanahi ere, zoritxarreko argazkietatik eta argazki folklorikoetatik ihes egin behar dut.

**JLG:** Oraintxe esan duzu: "iruditik ihes egitea". Harrigarria bada ere beti zinema egin nahi izaten da iruditik ihes egiteko.

**CA:** Hor dauden irudi klixeeetatik ihes egin nahi nuke. Ez iruditik, irudietatik baizik, irudi batzuetatik.



**JLG:** Irudi batzuk beste batzuekin ordezkatu daitezke?

**CA:** Zuk zeuk esaten duzu oraindik ez dagoela irudirik «Inskribatuta», eta nik esaten dut dagoeneko badaudela irudiak inskribatuta gudan. Eta, hain zuzen ere, horri buruz egiten dut lan: inskribatutako irudiei buruz eta inskribatu nahi nituzkeen irudiei buruz.

**JLG:** «Inskribatu» dizu «erakutsi» baino. «Argazki», «errebelatu» edo «kopiatu» terminoak ere ez dituzu erabiltzen. Idazketako hitzak erabiltzen dituzu.

**CA:** Noski, «buruan idatzitako irudiak» esaten delako, horixe gertatuko baita jendearen buruan irudi batzuk ikusi ondoren. Eta nirekin ere zerikusi handia du, irudi horiek bizitzeko moduarekin.

**JLG:** Atzo ikusi nuen Marguerite Duras. Une jakin batean, esan zuen: «Testu bat hutsean idazten da». Nahiko ados nago harekin. Horregatik diot beldur testuari, hutsaren beldur naiz, bertigoa erraz sentitzen dut, eta uste dut irudiak -lasaitzen nauenak- ezin direla hutsean inskribatu.

**CA:** Askoz errazagoa da irudiak egitea esaldiak baino. Hor dago, filmatzen dut, zerbait egongo da filmean. Idazketaren kasuan, berriz, hitz bakoitza atera behar da.

**JLG:** Oh, ez nago ados. Zure buruak zerbait ikusi duela pentsatuko du, baina ez da ezer egongo. Filmean ez dago ezer, pasatzen den unea da. Ez dago ezer, proiektatu eta norbaitek ikusten ez badu behintzat.

(...)

**CA:** Argi dago filmatzea gustatzen zaidala.

**JLG:** Baina filmatzea gustatzen bazaizu, zergatik

ez berehala egin, teknika gure esku baitago? Zergatik ez hartu Super 8ko kamera edo argazki-kamera?

**CA:** Noizean behin argazki-kamera hartzen dut.

**JLG:** Zure kasuan, argazki-kamerak ez dizu laguntzen proiektua garatzeko? Edo argazkiak egiten dituzu dagoeneko badakizunean zer egin behar duzun...

**CA:** Segun. Adibidez, orain konturatzen naiz ez dudala 1880-1930 aldiko irudi askorik, eta horregatik idaztea zaila egiten zait. Landa-eremuko industrializazioaren hasiera, adibidez: ez dakit zelakoa den forja bat, ez daukat buruan forja baten irudirik, edo nola gurutzatzen zen basoa trenbidearekin, ez dut ideiarik jendeak nola egiten zuen. Beraz, liburutegira noa eta irudiak bilatzen ditut. Ikusi ondoren bakarrik idazten dut. Erlazio bikoitza dago: irudiak daude, gero irudi horien gainean idazten da, eta azkenean filmatu egiten dira. *Les Rendez-vous d'Annaren* kasuan, ez nintzen hasi filma idazten Alemaniara joan eta argazki batzuk atera arte. Hala ere, egia da idazketarekin dudak harremana zinemarekin dudak harremana bezain indartsua dela, gustuko dut.

**JLG:** Ez al duzu uste indartsuagoa denik, eta hala dela, jende guztia bezala hamabost urtez egon zarelako eskolan, eta hamabost urtez ez zarelako egon zinema-eskola batean?

**CA:** Dagoena da. Paperezko orri bat, etxean. Eta ez zait gustatzen bideoa.


**JLG:** Baduzu telebistarik?

Chantal Akerman: Bai, lo egiteko balio dit.

**JLG:** Ez al zara telebistako irudien erantzule sentitzen?

**CA:** Beti gara guztiaren erantzule.

(...)



Saio hau Bilbon gauzatu zen, Arte Ederretako Museoan. Bertan Kirmen Uribek komisariotutako ABC erakusketa bisitatu genuen. Hain zuzen, oso erakusketa aproposa zen hitza eta irudiaren arteko lotura aztertzeko, Uriberen testuen inguruan multzokatzen baitira artelanak. Taldetan banatuta, gelaz gela joateko aukera izan genuen hainbat elementutan erreparatuz: gelan kokatutako testuak nola eragiten zion irudi bakoitzari; irudien multzokatzeak testuari erantzuten ote zion edo irudiaren beste logika batzuk argira ateratzen ote ziren...

Pandemiaren neurriak zirela eta, ezin izan genuen egun berean talde bakoitzak ateratako ondorioak amankomunean jarri, eta hortaz, hurrengo saio batean partekatzeko notak hartu zituen talde bakoitzak.





## Iritzia

HITZ ETZANAK

# Hitzak



Andoni Egaña

2021eko maiatzak 12



Nola sentitzen garen adierazteko hiztegi bat egin behar bagenu, ordena alfabetikoan egiteak ez luke zentzu handirik. Sentimenduak nahas-mahasean baitatoz, egunaren eta egoeraren arabera. Halere, koaderno berria hastean lehen orria txukun-txukun idazteko joera izan baitut umetatik, lehen hitza alfabetoari men eginez botako dut: abaildua. Ondoren beste mordo bat letorke...

Mizpiratua. Ahuldua, galdua, saldua. Gogo-hila. Ilupa. Erkin. Urmael. Maripetralin. Sumindua, samindua, mindua. Azkenputz. Iraganmin. Uhertu. Burumakur. Ertzeko. Zapan. Akitua. Ñaño. Geza. Jota. Haserre. Fidakaitz. Mailatua. Errea. Luzetsia. Ezindua. Hauskor, euskor, egoskortua. Irain. Ikaratu. Erotzear, erortzear. Lanbropeko. Txori-kaka. Maizter. Ozpin. Zelatari. Purrustarako. Ñimiño. Baldartu, bakartu, odoltxartu... Hiztegia txukun bukatze aldera, demagun azken hitzak *zikiratu*, *zokormazo* eta *zukutu* direla.

Egiazko sentimenduak azaltzeko halako aukera edukita, edonongo agintarien ahotan entzungo ditugunak gehienez ere dira «aurrera», «batera» eta «itxaropena». Metaforizaziorako halzeak jotzen dituenean, kondentsazio poetikoaren gailurra atzeman, eta «kimu berdeak» aipatzera hel daitezke. Non bizi dira? Norekin bizi gara?





*Euskarak badu gauza bat oso ederra hor. Eta aldi berean oso kritikagarria. Iruditzen zaigu entzun dela gaztelerazko escuchar, eta entzun ez da escuchar, entzun da oír. Escuchar da aditzea. Eta aditzetik heldu da adi egon; adi arrisku bezala baina baita adi, hau garrantzitsua da. Adimena, adiera. Gure hizkuntzaren zenbait kontzeptu oinarrizko zuzenean entzumenarekin lotuta daude. Seguraski, idatzizkoa oraindik oso mugatua zen garai batean, entzumena zelako jakintza eta jakinduria eta esperientziak elkar trukatzeko modu bakarra.*






*Hitzaren Eskolaren proposamena nola ulertu dudan eta nola situatu naizen azaldu dut; esperimintatzeko/probatzeko/jolasteko tarte bat izango da, ez dago ezer ekoizteko helbururik, helburu apalekoa baita beroketa lana. Intuizioari tarte emango zaio logikaren aurrean eta Azpeitiko lurraldearekin lan egingo dugu.*



**Erreferentziak eta lan materialak:**

L'usage de la photo. Annie Ernaux & Marc Marie  
Louis le Prince  
Lumiere anaiak  
Razielen itzulera. K.A  
Green Screen Gringo  
Dracula. Bram Stoker  
Florence Balcombe.  
Sipo Phantasma. K.A.  
Quebrantos. Maria Elorza eta K.A.  
Cirugía. Querido Antonio  
No eres nada. Querido Antonio.  
Agosto sin ti. Maria Elorza eta Maider Fernandez  
Carta a un joven poeta. Rilke.  
Ikea katalogoa  
Way Jambu. Manu Uranga  
Listas. Ignasi Aballi.  
Faceless. Manu Luksch  
Las Ruedas de la aves. Emily Dickinson  
Failed it!. Erik Kessels  
Se Villana. Maria Cañas  
River Rites. Ben Rusell.  
How to shave your legs. K.A  
Zineborroak. K.A  
2 fotogramas. Aitor Gametxo.  
Goldberg variations. Glenn Gould  
Uzak. Nuri Bilge Ceylan  
Exercices de style. Raymond Queneau  
99 ways to tell a story. Matt Madden  
Argazpitoluak. K.A  
Igeri edo Itto.K.A.  
Farmazia Beltza  
Belleza infinita argitaletxea



## **Gure kumeak**

Gure kumeak hirusta udan legez hazi dira.

Pentsatu genuen, jaio zirenean,  
ehun-hezurren egiturak,  
hortzoi hutsek  
eta izerdi amniotikoak  
gorputz artean garbitu gabean  
astro berri izendatzen gintuztela galaxian.

Zugatik, beldurrik gabe zeharkatuko ditut ibaiak.  
Horixe zen kemenaren definizioa.

Kumeen txor-txorak gainezka egin zion,  
birkalifikatuz,  
arrunta zenari, hutsala zenari, azalekoari.

Etxean asmatutako ipuin miresgarria  
zirudien etorkizunak,  
amaierarik eta salneurrik gabekoa.

Orain seme-alabek moldeatzen gaituzte beren erara,  
aknearen adina  
eta marihuanari buruzko dudak pasatu eta gero.

Eta zubi erdi hutsak hor dirau,  
geuk altxatu  
eta gure gurasoek gugatik altxatu zuten tokian.

Garondoan hotz bera sentitzea dagokigu  
denbora bat-batean eror dakigunean gainera.

Espero dut nik inolako tankerarik ez hartzea  
itzalen artean.



Egun batean kafea hartzera joan nintzen. Euria ari zuen. Kanpora egin nuen zigarro bat erretzera. Gizon gazte bat zegoen atarian, isilik egon ginen luzaroan. Hizketan hasi ginen halako batean, ingelesez. Bosniarra zela esan zidan, lanera etorria, bazirela 3 urte ez zuela familia ikusi. Telefonoa eskatu nion, koadernoan apuntatu zidan.

Eskolara iritsi nintzenean, ikasleek esan zidaten ikusi nindutela tipo batekin hizketan, taberna barruan zeudela, ea autografoa eskatu zidan. Barre egin nuen. Bosniarra zela esan nien, hizketan aritu ginela eta telefonoa eskatu niola, berarekin zerbait egin zitekeela pentsatu nuela.

Hurrengo klasean nire lagun bati esan nion etortzeko. Arropak aldatu genituen, gorila baten maskara jarri nion, eta mikro bat. Ni goiko balkoian ezkutatu nintzen, beste mikro batekin, eta handik hitz egin nien ikasleei, gorila maskara jantzita zeramana neu nintzela sinistaraziz.

Halako batean balkoitik jaitsi eta ikasleen artean eseri nintzen. Harrituta begiratu zidaten, sinistu ezinda bezala. Eta orduan nor da gorila maskara daramana? Ingelesez hasi nintzaion orduan, eta bosniarra zela pentsatu zuten, jakina. Begiradarekin dena ematen ari ziren, ongi etorri esanez bezala. Txirrina jarri nion gainera, bai edo ez erantzuteko txirrinaren bitartez, bat bai bi ez, eta halaxe eman genuen klasea, falta zen ordubete edo ordu t'erdian.

Bukaeran, maskara kentzeko eskatu nion, eta nire lagunak, maskara kentzeaz batera: joder, ia egosi naiz bertan! Eta ikasleak berriro geratu ziren zur eta lur, ordura arte uste izan zutena berriro erori zitzaielako.

Bueno, ba hori da tranpa performatiko bat. Eta oso ondo etortzen da errealitatea eta fikzioa nahasten diren lekua sortzeko.

---

Jednog dana sam otišao na kafu. Kiša je padala. Izašao sam napolje da popušim cigaretu. Na vratima je bio mladić, dugo smo ćutali. U jednom trenutku smo počeli da pričamo, na engleskom. Rekao mi je da je iz Bosne, da je došao na posao, da nije vidio porodicu 3 godine. Pitao sam ga za telefon, zapisao je u svesku.

Kada sam došao u školu, učenici su mi rekli da su me vidjeli kako razgovaram sa tipom u baru i tražim autogram. Smijao sam se. Rekao sam im da je Bosanac, da smo razgovarali i da sam tražio njegov telefon, da mislim da mogu nešto učiniti s njim.

Na sledećem času sam rekao jednom prijatelju da dođe. Presvukli smo se, stavio sam gorilu masku i mikrofon. Sakrio sam se na gornji balkon, drugim mikrofonom, i odatle razgovarao sa studentima, navodeći ih da vjeruju da sam ja taj koji nosi masku gorile.

U jednom trenutku sam sišao sa balkona i sjeo među studente. Gledali su me šokirano, kao da ne mogu vjerovati. I ko onda nosi masku gorile? Tada sam počeo da pričam s njim na engleskom, a oni su naravno mislili da je Bosanac. Davali su sve svojim izgledom, kao da žele dobrodošlicu. I ja sam mu stavio zvonice, pomoću zvonca da odgovori da ili ne, jedno da dva ne, i tako smo završili čas, ostalo je sat ili sat i po.

Na kraju sam ga zamolio da skine masku, a moji prijatelji, uz skidanje maske: dovraga, skoro sam skuhaio! I učenici su opet zanijemili, jer je ono što su vjerovali do tada ponovo palo na njih.

Pa, to je performativna zamka. I vrlo je zgodno za stvaranje mjesta gdje se stvarnost i fikcija miješaju.

*Nola irudikatzen dugu guk euskarazko hiztun on bat? Zer da euskarazko hiztun ona? Eta zer da gaztelaniazko hiztun ona, edo frantsesezko hiztun ona, edo ingelesezko hiztun ona...?*

*Eta nola batek daukan karga bat, autentikotasunarena, berezko hiztuna eta autentikoa izatearen balio hori: bere ama-hizkuntza da, oso dialekto jakina hitz egiten du, bere inguruko landareak izendatzen daki bere herrian bakarrik erabiltzen den hitz horrekin, eta hori da euskarazko hiztun on bat. Karikaturara eramanda, ia-ia elebakarra da, ez du irakurri eta bere hizkuntza ez da kutsatua izan beste ezergatik, naturaren parte da.*

*Eta, aldiz, gaztelaniazko edo frantsesezko edo hizkuntza nagusi bateko hiztun on bat da jakintsua dena, kultoa dena, jasoan hitz egiten daki, estandarrean hitz egiten daki, irakurri du, beste hizkuntzei buruz badaki, literaturan aditua da...*

*Klixek horiek guztiak nola funtzionatzen duten desberdin hizkuntza gutxituetan edo hizkuntza nagusietan eta non dagoen horren jatorria, eta hori ez da gaur egun sortu den zerbait, baizik eta XIX. mendetik hona arrazionaltasunaren ideologia nagusiak ekarri du hizkuntzaren noranahikotasuna eta funtzionaltasunaren balioa, eta erromantikotasunak berriz indexitalitatea, nonbaitekoa izatearena, partikularra eta berezia, eta ahal balitz gainera primitiboa eta ukitu gabea eta kutsatu gabea izatearena.*



**MUSIKA: BB King, How Blue Can You Get?**

*Orain artekoa izan da Joxe Agirre rap, hau entzun eta trumoiaren bat bidaltzen ez badigu hemendik aurrerakoa izango da Joxe Agirre blues...*

**MUSIKA: hogei bat segundu eta irakurketa hastean apaldu**

## **Joxe Agirre Blues**

*Izarraizpeko malkar baserri batean beltz bat jaio zen, ile kixkurrak zekartzana, beltzek bezala, eta jolaserako gogoia latza, ilea bezala. Han ez zen Mississippi izeneko ibairik pasatzen, baina euria ziri-ziri egiten zuen...*

Ipuin bat idazten hasi nintzen, ideia muttur bati tiraka, baina ohartu nintzen ipuina bera baino interesgarriagoa izan zitekeela jolas haren azalpena, edo ezkutuko intentzioa. Gainera, ohar batzuk erantsi gabe ipuinak nekez euts ziezaiokeen ildoari, idiak eutsiko ez liokeen bezala norbaitek itulan egin ezean.

Oroitzapen bati tiraka hasi nintzen idazten. Ez dakit benetako oroitzapena zen, edo amets batena, ez dakit zein kajoitatik erori zen, baina bat ala beste izan ni han presente nintzen. Bertso hautsi bat zen. Puntu bat. Esango nuke ermita baten aurrekaldean izan zela, eta zuhaitz bat bazela ondoan, zuhaitz hori gaztaina zela ere esango nuke. Baina elementu estetiko horiek lagundu egiten diote memoriari, beraz posible da gaztainondo hori gerora nik landatua izatea, hitzei eusteko, nahiz eta pentsatzen jarrita, hitz haiek, beren buruari eusteko, ez zuten ezeren beharrik.

MUSIKA: 2:46 segundura iristen denean gelditu eta isiltasuna utzi.

Ezagutzen al duzu zuk Joxe BB King?  
...eta Joxe Agirrek erantzun zuen, jendeari barruan barrea erne artean:  
gaur arte ez naiz inoiz gertatu berekin...

Ez dakit handik atzera nola segitu zuen, ni han gelditu nintzen, Joxe Agirre Mississippi ibaitik nola ateratzen zen begira, erreferentzia kultu haren ziria nola heldu eta nola tolesten zuen harrituta. Erantzun hark ez zuen erremediorik.

Jolas ohikoa da guretzat bertsoan ari garela elkarri plano kulturalak trukatzeari, bakoitzari bere ezezagutzaren mugak bilatuz, ezezagutza horiek ulergarriak direla beti ere, horrek situazio komikoak sortzen ditu. Joxe Agirre zenari hala presentatu zioten BB King, test kultu baten forman, jolasean. Baina jolas hark bazituen agian bere azaleko umorea baino geruza sakonagoak, eta geruza horietan suma liteke kultura ttikiaren eta Kultura Handiaren arteko mailaketa bat, edo ispilu joko bat, eta ispilu horretan ttikia berez dena baino ttikiago agertzen da, bere basa jakintza ez bailegoen arte unibertsalean txertatzerik, bada hor inguru hurbilaren eta mundu zabalaren arteko pertzepzioen talka bat, lehia ezkutuko bat... Horregatik apreziatzen dut hainbeste Joxeren erantzuna; ...BB king gaur arte ez naiz inoiz gertatu berekin... Logika ximpleenetik, erreferentzia kosmopolitetan ito denari galdu zaion sen ixuri berezko batetik.

**MUSIKA: 2:46tik berriz abiatu, kantuaren bukaera arte. Pixka bat apalago jarri oihuka ari denean...(Bukatzen ari denean kantua apalduz joan eta isiltasuna utzi)**

Berria egunkaria jaso nuen etxean, maiatzaren hamaseia zen, eta BB King hil berria. Portadak bere argazki bat zekarren eta kulturako orri nagusia. Han barneratu nintzen haren bizitzan, bere hitzetan: "kotoi soroetan aitzur bat arrastaka zeraman mando bat gobernatzen ari nintzen", bluesaren sorburua irudikatzen zuen bere biografiaren lerro hark. Kazetariak ere bidezidor hori hartu zuen, "esklaboen kantu eta lantu horietan dauka jatorria blues musikak. Komunikazio keinu gisa ere erabiltzen zuten; ugazaba bazetorrela abisatzeko, esaterako." Artean, ez nintzen Joxe Agirrerekin akordatu, bere puntu erantzun hura ez zegoen nire memorian, edo nire ametsen fabrika. Eta artikulua irakurtzen segitu nuen. Laurogeita bederlatzi urte eta hala ere eszenariorako ar hark heltzen omen zion Kingi urdailean, "erretiratu? Goikoak deitzen nauenean soilik". Eta zenbakitan esplikatzeko zen gero bere plazarako indar nekazina: "hamabost mila kontzertu eman zituen guztira, eta 1970eko hamarkadan hirurehun bat emanaldi eskaintzen zituen urtero...". Kalkuluak egiten hasi nintzen orduan, egutegiarekin matematikak. Agenda bakoitzean hirurehun kontzertu apuntatzeko erritmo infernal hartan hamar urtean eutsiz gero hiru milako kopurura iristen zen. Hamarkada batean hiru mila kontzertu. Besterik ez. Halako bost behar ziren hamabost milarako. Bost hamarkada, berrogeita hamar urte, edo nahi bada mende erdi bat, ia egunik huts egin gabe eszenario gainera igoz, BB King. Artean ez nintzen akordatzeko ni Joxerekin.

**MUSIKA:BB King, Don't Answer The Door pieza jarri.**

Berria itxi eta interneten bila hasi nintzen harriturik, BB Kingen bila, argazki baten bila, hamabost mila kiloko harri hari tiratzeko gai zen idi beltzaren bila, ikusi nahi nuen zer aurpegi zuen, neke arrastorik sumatzen ote zitzaion. Eserita aurkitu nuen, begiak erdi itxita, oihu ito bat loratzen zen bere ezpainetan. Esklaboen lanturuak irudikatzen zituen, eta bide batez bere belaunetako mina. Horregatik kantatzen zuen eserita. Belaun biak gogortuak zituen. Orduan etorri zitzaidan Joxe gogora. Bolada luze batean ez zituen sekula hiru bertsoetik gora botatzen altxaldi bakoitzean. Junturak minberatzen zitzaizkion. Eta okurrentzia on bati hozka eginik, ipuruan buelta hartzen duen idiaren pauso nekezean, aukira itzultzen zen ezpain bihurrika. Ez genuen asmatu hark eserita kantatzeko bankurik.

Atzekoz aurrera hasi nintzen Berriako artikulua berriz leitzen, eta konparaketa jolas bat hasi nuen. Joxe Agirre BB King baino ttikiagoa zen gorputzez, eta laburragoa zangoz. Hamabost mila kiloko harririk ez zuen altxako bere bizitzan, eta hainbeste plaza kurritu ere ez, baina hil zenera arte bertsoetan segitu zuen, zaharrago eta irrika gehiagorekin. Aparteko logika existentzial bat erakutsiz jolasaren frenteko lehen lerroan hil zen Joxe. Azpeitiko erdikalean elkarren ondoan esnatu ziren Joxeren izena zekarren bertso saio bateko kartela eta haren eskela. Bertsoa jolas askatzaile bat bezala zeraman kolkotik zintzilik. Menturaz bluesaren jatorrizko zentzuetatik aski hurbil.

*Le peuple du blues*, LeRoi Jonesen liburuan murgildu nintzen egun batzuk pasatzean, eta esklabo afrikarren amerikartze prozesua kontatzen zuen, zer garrantzia izan zuen bide horretan musikak. Beltza izatea hizkuntza debekatu bat baitzen. Eta paisaia psikologiko horretan loratzen da bluesa, eskuak eztarriraino urratuak zituztenen kantu modua. Beste detailetxo bat: afrikako erroa zuen musika hartan inprobisazioaren espazioa oso handia zen. Orduan Joxeren haurtzarora egin zidan gogoak ihes, baserri giro hartara, eta ziur naiz, noizbait, barne pentsamenduen ildoan, ametsetako ermitaren batean, ezagutuko zutela elkar Joxek eta BB Kingek.

Konparaketa jolasaren azken ahaleginean Oranda baserriaren argazki bat aurkitu nuen aitaren aldizkari zaharren artean, zuri beltzekoa. Aldapa leku batean ikusten zen baserria, nekearen soro luzez inguratua, behi txaroles edo holandes batzuk, eta atzerago idi bat lanean. Mendiek salatzen zuten hura ez zela Alabamako herri bat, ez eta Louisianakoa. Han Mississipi ibaiak Urola izena zuen. Bestelako erremintak ziren han lanerakoak, baina pentsatu nuen han ere gurditzar baten bide nabarraren ertzean oinez zebilenak bere buruan armonia bat beharko zuela denboraren mekanikari ihes egiteko. Gogoaren bidezidorretan gertatzen baitzen dena, gainontzeko guzia oso ongi loturik zegoen, gobernatzen ziren mandoek arrastaka zeramaten aitzur hura bezala... Nekearen soro luze haietan jaso zuen Joxek hitzen artisautzaren tradizio txori, eta hil arte segitu zuen errimak eta neurriak beren loturetarik askatzen.

Nola aipatutako egun hartan; ezagutzen al duzu zuk Joxe BB King?  
...gaur arte ez naiz inoiz gertatu berekin.

***MUSIKA: hamabost bat segundu utzi eta pixkanaka apaldu...***

Joxe Agirren bertsoaren pista jarri.





**URRIAK 2**  
**ASTEAZKENA**  
**19:30**  
DINAMOA  
SORMEN GUNEA  
AZPEITIA  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**URRIAK 30**  
**ASTEAZKENA**  
**19:00**  
DINAMOA  
SORMEN GUNEA  
AZPEITIA  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**ABENDUAK 18**  
**ASTEAZKENA**  
**19:00**  
DINAMOA  
SORMEN GUNEA  
AZPEITIA  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**IÑIGO ASTIZ**  
**POESIA ERREZITALDIA**

**HITZALAK**

**MAIDER OLEAGA**  
**MIREN GAZTAÑAGA**

**INORK EZ ZEKIN IGARO GABE**  
SOLASALDIA



**HARKAITZ CANO** eta **ANTTON OLARIAGA**

Azpeltiko Kultur Mahaia | dinamoa.eus | azpeitiazaldia

Azpeltiko Kultur Mahaia | dinamoa.eus | azpeitiazaldia

Azpeltiko Kultur Mahaia | dinamoa.eus | azpeitiazaldia

**URRIAK 28**  
**ASTEAZKENA**  
**19:30**  
DINAMOA  
SORMEN GUNEA  
AZPEITIA  
Soreasu Antzokia  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**ABENDUAK 2**  
**ASTEAZKENA**  
**19:00**  
DINAMOA  
SORMEN GUNEA  
AZPEITIA  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**IRAILAK 30**  
**ASTEAZKENA**  
**19:00**  
DINAMOA  
SORMEN GUNEA  
AZPEITIA  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**ZUMIRIKI**  
**OSKAR ALEGRIA**

Filmaren proiektzioa eta solasaldia

**URAREN OLDEA**  
**PERU GALBETE**

zuzeneko musika eta proiektzioa biltzen dituen sentikaria

**NOLA IRAGARRI EGITEAR DAGOENA?**  
**IRAIA ELIAS** eta **IÑIGO ARANBARRI**

Uperatuak eta bot. Zapi makil hondoratu. Ibaizateko ateko bot. Denborak ofiziazaren munita haurtzaroko eta botatzen.



Hitz hutsez adierazia. Istorio betea, bi aktorek garpatua, soinu erantsia, gainontzekoa erantsita...



Azpeltiko Kultur Mahaia | Kulturaz | dinamoa.eus | azpeitiazaldia

Azpeltiko Kultur Mahaia | Kulturaz | dinamoa.eus | azpeitiazaldia

Azpeltiko Kultur Mahaia | Kulturaz | dinamoa.eus | azpeitiazaldia

**URRIAK 30**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
DINAMOA  
SORMEN GUNEA  
AZPEITIA  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**AZAROAK 27**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
DINAMOA  
SORMEN GUNEA  
AZPEITIA  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**URTARRILAK 29**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
DINAMOA  
SORMEN GUNEA  
AZPEITIA  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**SXT**

Zuzeneko

**ESTANIS COMELLA**

**PLAQUETTEA**

KOLDO ALMANDOZ + HITZAREN ESKOLAKO IKASLEAK

**ZAHARTZAROA IRAKURGAI**



**EIDER RODRIGUEZ, MIREN AGUR MEABE, MARI LUZ ESTEBAN**  
**AINHOA ALBERDI** eta **IRAIA ELIASEK** IRAKURRIKO DITUZTE:  
UXUE ALBERDI, MIREN AMURIZA, KARMELE JAIQ, ANA MALAGON eta MARIA MERCE MARÇAL  
**ANARI**

Azpeltiko Kultur Mahaia | Kulturaz | dinamoa.eus | Azpeitia

Azpeltiko Kultur Mahaia | Kulturaz | dinamoa.eus | Azpeitia


Azpeltiko Kultur Mahaia | Kulturaz | dinamoa.eus | Azpeitia





**URTARRILAK 29**  
**ASTEAZKENA**  
**19:00**  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**ANJEL LERTXUNDI**  
**IRENE ARRARATS**  
**ITZULPENAK BIZI GAITU**  
ITZULTZAILE ETA IDAZLE BATEN ARTEKO SOLASALDIA




Azpeitiko Kultur Mahala | dinamoa.eus | azpeitiazaldia



**OTSAILAK 29**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**JOSU ZABALA**  
**IGOR ELORTZA**  
**KANTUARI HITZA EMATEAZ**  
ENTZUKETA ETA SOLASALDIA



dinamoa.eus

Azpeitiko Kultur Mahala | Kulturaz | azpeitiazaldia



**MARTXOAK 28**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

POESIA IRAKURRALDIA  
**GOSEAK JANAK**

AMAGIOIA GURRUTXAGA, DANA MOYA, IRATI AGIRREAZKUENAGA, IDURRE ESKISABEL




Azpeitiko Kultur Mahala | Kulturaz | azpeitiazaldia



**OTSAILAK 20**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**MURSEGO**  
**I SEE / YOU MEAN**

Lucy R. Lipparden Liburuaren berrirakurketa



Azpeitiko Kultur Mahala | Kulturaz | dinamoa.eus | azpeitiazaldia



**MARTXOAK 20**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**ERLOJUPEAN SORTZEN**  
**ANDONI EGAÑA ETA XABIER ZABALA**



Azpeitiko Kultur Mahala | Kulturaz | dinamoa.eus | azpeitiazaldia



**APIRILAK 24**  
**LARUNBATA**  
**10:00-18:00**  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**BELARRIJANA**

Hitzaren eskolako partaideen soinuak piezen eta beste hainbat soinuren entzunaldia

**LASAI ETORRI, ESERI ETA ADITU**

Hitzaren eskolako partaideak, Luc Ferrari, Hildegard Westerkamp, Xabier Erkizia, Toshiya Tsunoda, Marc Namikawa, Eric La Casa, Lionel Marchetti, Anna Lockwood.



Azpeitiko Kultur Mahala | Kulturaz | dinamoa.eus | azpeitiazaldia



**OTSAILAK 26**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**BINGO NUDISTA**  
METROKADAROKA SORMEN LABORATEA + HITZAREN ESKOLAKO IKASLEAK



Azpeitiko Kultur Mahala | Kulturaz | dinamoa.eus | azpeitiazaldia



**MARTXOAK 26**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**rr**  
#05 marrak  
Hitz eta bertso erretzitaldia da **MAIALEN LUJANBIO**



Azpeitiko Kultur Mahala | Kulturaz | dinamoa.eus | azpeitiazaldia



**MAIATZAK 7**  
**LARUNBATA**  
**12:00**  
HITZAREN ESKOLAKO EKITALDI IREKIA

**ORANDATIK HOLANDARA**

O DEI BARROSO, AMETS ARZALLUS ETA HITZAREN ESKOLAKO IKASLEAK



Azpeitiko Kultur Mahala | Kulturaz | dinamoa.eus | azpeitiazaldia



## > Irakasleak

### Hitzaren Eskola 2019-2020



#### **Igor Elortza**

Bertsolaria, besteak beste. Bost bider izan da Bizkaiko txapeldun, eta Euskal Herriko lau finaletan lehiatu da. Gidoigintzan, kantuan, idazten, komunikazio lanetan ere aritzen da.



#### **Lorea Agirre**

Kazetaria. Hainbat kazetaritza liburu argitaratu ditu. Egun Jakin aldizkariko zuzendaria da.



#### **Harkaitz Cano**

Idazlea. Hiru bider irabazi du Euskadi Saria eta beste horrenbestetan Espainiako Kritikarena. Dozena bat hizkuntzatan irakur daitezke bere liburuak.



#### **Miren Gaztañaga**

Aktorea. Hainbat eta hainbat konpainiarekin ibili da lanean 1999an hasi zenetik. Telebistan eta zinean ere aritua da.



#### **Gorka Arrese**

Kazetaria, idazlea, editorea. Susa argitaletxeko editorea izan zen 25 urtez.




#### **Irene Arrarats**

Zuzentzailea eta itzultzailea. Berriko euskara-arduraduna da, eta estilo-liburuaren zuzendaria.



## Hitzaren Eskola 2020-2021



### **Andoni Egaña**

Idazlea eta bertsolaria. 1993-1997-2001 eta 2007ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian txapeldun.



### **Maddi Barber**

Zinemagilea. Zenbait film zuzendu ditu: Distantziak (2015, film kolektiboa), Yours Truly (2018, film kolektiboa), 592 Metroz Goiti (2018), Urpean Lurra (2019) eta Gorria (2020).



### **Iñigo Aranbarri**

Hizkuntza irakaslea eta idazlea. Hizkeraren atzean gordetzen denaz, Hitzak eta giltzak (2001) eta Hizlandia (2006) ditu lanik aipagarrienak.



### **Haizea Barcenilla**

Artearen Historia ikasia, gaur egun EHU-n Artearen Historia erakusten du. Arte kritika idazten du, eta komisario lanak ere egin ditu hainbat eta hainbat erakusketarako.



### **Xabier Erkizia**

Soinuarekin eta entzumenarekin egiten du lan nagusiki. Musika, irratia, soinu-arte edo filmetarako hotsak egiten eta moldatzen ditu. Soinumapa Euskal herriko soinuen maparen sortzaile.



### **Arantxa Iturbe**

Kazetaria, idazlea, irratilaria. Euskadi Irratian darama lanean bitzta erdia baino gehiago.

## Hitzaren Eskola 2021-2022




### **Amets Arzallus**

Kazetaria, idazlea eta bertsolaria. 2013ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuen. 2018an hasi zen Irungo Harrera sarean migranteei laguntzen, eta han sortu zen Ibrahima Balderekin idatzitako liburua, Miñan (2019), hainbat hizkuntzatarara itzuli dutena.



### **Miren Artetxe**

Bertsolaria, EHUKo irakaslea eta ikerlaria. Bertsolari gazteen hizkuntza-ibilbideei eta gazte-eta hizkuntza-identitateei buruz egin zuen tesia.



### **Koldo Almandoz**

Pelikulak filmatu, liburuak argitaratu eta hainbat proiektutan parte hartzen du. Sîpo Phantasma, Belarra, Ahate Pasa, Oreina, Deus et Machina, Quebrantos, Hondar Ahoak dira bere film batzuen izenburuak.




### **Mari Luz Esteban**

Antropologoa eta idazlea. Gizarte antropologiako irakaslea da EHU-n, non Ikasketa Feministak eta Generokoak doktorego-programa eta AFIT-Antropologia Feminista Ikerketa Taldea koordinatzen dituen.



### **Oier Guillan**

Idazlea, kazetaria, antzerkigilea. Hainbat liburu kaleratu ditu poesia, narrazioa eta antzerkiaren arloan, azkenak VHS (2020), Zauri Bolodia (2018), Mr. Señora (2016). 2008tik Metrokoadroka kolektiboko partaidea da.



### **Ula Iruretagoiena**

Arkitektoa eta Arkitekturan doktorea. EHUKo irakaslea. Tabakalerako Hiriak eta Bestelako Politikak programa koordinatu zuen Ibon Salaberriarekin batera 2013-2018 bitartean.

## > Ikasleak

### Hitzaren Eskola 2019-2020

- Edurne Lazkano Ibarbia
- Ane Labaka Mayo
- Felipe Murillo Egiguren
- Maialen Berasategi Catalán
- Miren Amuriza Plaza
- Iñigo Antsorregi Dierex
- Eñaut Elorrieta Larruzea
- Nerea Loiola Pikaza
- Oihana Elduaien Uranga
- Ane Garcia Lopez
- Lander Arretxea Bereziartua
- Eider Perez Martinez
- Ignacio Arakistain Agirre
- Ana Abarisketa Larrañaga
- Jon Gurrutxaga Urbiet
- Xabier Larrazabal Intxaurbe

### Hitzaren Eskola 2020-2021

- Egoitz Arruti Uria
- Aitor Odriozola Zubillaga
- Aintzane Usandizaga Lopez
- Xanti Agirrezabala Zeberio
- Unai Bidasoro Agirre
- Laura Alberdi Zumeta
- Eneritz Arzallus Alustiza
- Lorea Zulaika Arriaga
- Ekaitz Goienetxea Cereceda
- Ainhoa Juaristi Eizmendi
- Olatz Aranguren Juaristi
- Oihana Eizagirre Askarai

### Hitzaren Eskola 2021-2022

- Uxue Arzelus Lasa
- Ainhoa Aldazabal Gallastegi
- Ainara Azpiazu Aduriz
- Arrate Arozena Mujika
- Iraitz Lizarraga Gomez
- Ixiar Eratsun Urtzelaieta
- Esti Curiel Prieto

# hitzen eskola

*[memoria osoa sarean](#)*

